




UEU

Urteko Txostena
2015



UEU

Urteko Txostena
2015



6	Sarrera
6	Zer gara?
6	Nolakoak gara?
7	Non gaude?
8	UEU
8	2015eko EMAITZA
8	“UEU Nafarroan: aukerak eta erronkak” mintegia
8	UEUren eta Oihaneder Euskararen Etxearen arteko hitzarmena
8	UEU ere Euskahaldun: KORRIKA
8	UEUren eta BERRIaren arteko hitzarmena
9	UEUren eta Deustuko Unibertsitatearen arteko hitzarmena
9	Hitzarmena Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin
9	Juan San Martin beka
9	UEUren Bilboko eta Eibarko egoitzak
10	ADITU DUZU? irratsaioa
12	Jarduera akademikoa
12	“Lurraldea eta Hizkuntza II. Jardunaldiak. Erronkak & tresnak”
12	Udaberriko eskaintza
12	“Munduari so: XXI. mendeko inperialismoaren hausnarketa prozesu ezberdinen gakoei erreparatuz” jardunaldiak
12	“Euskara, estatugintza eta naziogintzaren erdian” jardunaldiak
13	Udako ikastaroak: #Jardun
13	Informazio eta Dokumentazio Kudeatzaileen I. Bilkura.
13	“Lankidetza ardatz, euskara bitarteko, herritarra helburu”
13	Hizkuntzalari Euskaldunen II. Topaketa: “Eleaniztasunak baditu hamaika aurpegi”
15	“Beste ekonomia bat sustatzeko unibertsitate eredu eraldatzaileak” jardunaldiak
15	Mendizaletasunari buruzko graduondoko berria antolatu du UEUk
15	Ikasturtearen hasiera: lankidetza sustatzeko deia
16	Udazkeneko eskaintza
16	MOOC ikastaroak
16	“IEB2015: Amesten al dute androideek ardi latx elektrikoekin?”
16	“NZ2TOPA! Natur Zientzien 2. Topaketa”
16	Code.org euskaratzeko maratokia
17	Euskal Wikipedia elikatzeko topaketa
18	Argitalpengintza
18	Argitalpen-protokoloa martxan
18	10 liburu berri
18	UZTARO aldizkaria
18	ALDIRI aldizkaria
18	Unibertsitateko ikasmaterialak sustatzeko diru-poltsak
18	Buruxkak liburutegi digitala
19	KONDAIRA aldizkaria martxan
19	Durangoko azoka
20	Informazio- eta komunikazio- teknologiak
20	INGUMA datu-basea, gero eta aberatsagoa
20	Unibertsitatea.net
20	TESIKER. Euskarazko doktorego-tesien 40 urteko ibilbidea
20	Euskarabildua #4 - 2015 edizioa

Sarrera

Zer gara?

Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)

Udako Euskal unibertsitatea (UEU) irbazi-asmorik gabeko eta Onura Publikoko aitormena duen kultur elkarte da. 1973. urtean sortu zen Ipar Euskal Herrian eta orduz geroztik bere helburu nagusia Euskal Unibertsitatea sortzea da. Horrekin batera, honako lanildo nagusi hauek ditu:

- Euskararen eta unibertsitatearen arteko zubiak eraikitzea.
- Euskal komunitate zientifiko-intelektuala biltzea.
- Unibertsitategaiak ekoitzi eta gizartearen esku jartzea. 1.000 bazkide baino gehiagok osatzen dute UEUren oinarri soziala jakintza alor desberdinetako sailetan antolatuta.

Zer egiten dugu?

Euskal Unibertsitatea sortzeko ildo

UEUren helburu nagusia dugu hau. Izan ere, euskal gizartea bere osotasunean garatzeko ezinbesteko ikusten dugu maila goreneko hezkuntza erakundea sortzea honako ezaugarri hauekin: euskal gizartearen beharretara egokitua, izaera soziala izango duena, Euskal Herria bere osotasunean hartuko duena eta euskara hizkuntza ardatz nagusia izango duena. Helburu hau lortze bidean etengabe lanean ari gara. Jada hainbat saio burutu ditugu eta etorkizunean jarraikortasuna izango duen ildo bat izango da zalantza barik.

Argitalpengintza: liburuak eta aldizkariak

Liburugintzaren alorrean UEUren helburua bikoitza da: azpiegitura bibliografikoa sortzea batetik, eta arlo teknikoetan euskarazko terminologia eta sintaxia finkatzea bestetik. Unibertsitate mailako ikasketa zein ikerketan bibliografia zabala edukitzea

ezinbesteko baldintza da unibertsitate eredu osasuntsu bat lortzeko. 1978. urtean lehen liburua argitaratu genuenetik, dagoeneko ehunka izenburu ditugu gure katalogoan, eta unibertsitate mailako euskarazko testugintzan dekanu bilakatu gara.

Jarduera akademikoa

Aurrekoa lortze bidean, goimailako formazioa eskaintzeko lan egiten dugu. Etengabe aldatzen den gizarte honetan beharrezkoa da ezagutza berriak barneratzea. Bide honi jarraituz, unibertsitate mailako formazioa, ikastaro espezializatuak, mintegiak, jardunaldiak, irakasle zein profesionalei zuzendutako prestakuntza, udako ikastaroak eta hauekin lotutako ikerketa lantzen ditugu UEUn. Alor honetan dagoeneko erreferente bilakatu gara.

Informazio eta Komunikazio Teknologia

Goimailako formazioaren beharrak asetzeko badira urteak teknologia berriak uztartzen ditugula. IKTak egungo baliabideak dira eta hezkuntza munduan erabiltzea ezinbestekotzat jotzen dugu. Horregatik, hainbat proiektu jarri ditugu gizartearen eskura Interneten: Inguma, euskal komunitate zientifiko-intelektualaren datu basea (www.inguma.eus); UZTARO, Giza eta Gizarte Zientzien aldizkaria (www.uztaro.eus); UEUren liburutegi digitala (www.buruxkak.eus); Uztaro.eus, UEUren Giza eta Gizarte Zientzien aldizkaria (www.uztaro.eus); Unibertsitatea.net, komunitate unibertsitario euskaldunaren ataria (www.unibertsitatea.net); Kondaira, Historiako aldizkari elektronikoa (www.kondaira.net); eirakaskuntza gunea (<http://eirakaskuntza.ueu.org>);...

Nolakoak gara?

Kalitatea

UEUn kalitatea dugu helburu aurrera eramaten

ditugun jarduera eta proiektu guztietan. Hizkuntzaren zaintza, eduki, metodologia, material, baliabide eta gainontzeko bitartekorik hoberenak erabiltzen ditugu azken emaitza onena izan dadin.

Gizartearekiko erantzunkizuna

Onura publikoko izaera izanda, UEUren eginbeharra da gizarteak goimailako prestakuntzan dituen beharrak zeintzuk diren jakin eta horiei erantzuna ematen saiatzea. Ahal den neurrian, gainera, eskainitakoa mundu guztiaren eskura modu erraz eta erosoenean jartzen saiatzen gara.

Euskararekiko konpromisoa

Euskara da UEUren ardatz nagusietako bat, gure izatearen arrazoietakoa bat. Unibertsitatemailako garapena euskararen bitartez dugu helburu eta horretarako bideurratzailea izan gara (eta gara) terminologia zientifikoa definitzeko eta euskararentzat itxitako ateak irekitzeko orduan. Euskara da Udako Euskal Unibertsitatearen komunikazio zein lanerako hizkuntza, eta euskaraz sortzen, antolatzen eta gauzatzen ditugu gure jarduera guztiak.

Puntapuntako gaiak

Unibertsitateak gizartearen motorra izan behar du berrikuntza eta aurrerapenen aldetik. UEUren egitekoa da gai berritzaileak lantzea, mamitzea eta ondoren, gizarteratzea. Horretarako, aditu onenen, erakunde zein elkarte puntakoenen aliantzak biltzen ditugu.

Izaera partehartzailea

UEUren izaera soziala da. UEUren oinarria bazkideok osatzen dugu eta barneegitura guztiak irekiak ditugu lan egin nahi duenarentzat. Sare zabala horrek proiektua etengabe aberasten du.

Hurbiltasuna

UEU gizartetik zein beste erakundeetatik gertu dagoen elkarte da. Harreman zuzen, goxo eta hurbileko horri esker, proiektua urtez urte sendotuz doa, eta gizartearen eskaerak zuzenezuzenean jaso eta erantzuteko aukera ematen digu.

Autonomia

UEUn ez gaude erakunde, egitura edota talde konkretuen izaera eta unean uneko interes edo jokabideen menpe. Mendekotasun bakarra gure helburuekiko dugu, eta berauek lortzeko erabakiak UEUko bazkideek osatzen duten Batzat Nagusian hartzen dira.

Dinamikotasuna

Hezkuntzaren mundua egunez egun aldatzen ari da. Ikasketa unibertsitarioak ikasturtero moldatzen dira, lana bilatzeko zein hobetzeko gure burua etengabe prestatzea ezinbestekoa da, teknologia berriek beste hezkuntza ikuspegi baten aurrean jartzen gaituzte urte batetik bestera. Egoera honi aurre egiteko beharrezkoa da moldatzeko gaitasuna duen erakunde bat izatea; eta UEU hala da.

Konpromisoa

Inguruan lan egiten duten pertsonen atxikimenduak ahalbidetzen du egun UEUren proiektua sendoa izatea eta hezkuntza alorreko erreferente bilakatzea.

Non gaude?

Lau egoitza ditugu

Egoitza Soziala Bilbon

Erribera kalea 14, 1D - 48005 Bilbo
T (00 34) 94 679 05 46
F (00 34) 94 479 30 39
ldazkaritza@ueu.eus

Egoitza Soziala Baionan

Arsenal plaza 1 - 64100 Baiona
iparraldea@ueu.eus

Egoitza Akademikoa Eibarren

Markeskoa, Otaola 1 - 20600 Eibar
T (00 34) 943 82 14 26
F (00 34) 943 82 06 16
markeskoa@ueu.eus

Egoitza Soziala Iruñean

Joaquin Beunza 13, behe - 31014 Iruñea
T (00 34) 948 36 25 63
F (00 94) 948 38 46 59
nafarroa@ueu.eus

UEU

UEUren helburu estrategikoa da Euskal Unibertsitate euskalduna, nazionala eta herrikoia sortzea. Lan horretan bidelagun garrantzitsua du UEUK: Euskal Unibertsitatearen Elkartea, zeinean gurekin batera Ikastolen Elkartea, EKT, AEK, Kontseilua, Ipar-Hegoa Fundazioa eta Elkar dauden. Europan, azken urteetan, unibertsitate berriak sortzen ari dira, horietatik asko on-line edo erdi-presentzialak. 2015ean hiru ardatz nagusitan lan egitea erabaki dugu:

- Graduak on-line eta euskaraz eskaintzeko beharra gizarteratzea.
- Gipuzkoako Foru Aldundiarekin gaia birplanteatzea.
- Etorkizunerako proiektua lantzen jarraitzea eta gizarte-eraleekin konpartitu/kontrastatzea.

2015eko EMAITZA

Alde batetik, orain arteko ibilbideari jarraipena eman diogu, bai arlo estrategikoan (graduak on-line proiektua), bai hezkuntzaren ildoan (uda/negua, bertakoa/on-linekoa, etengabeko formazioa/graduondokoak), baita argitalpen eta datu-baseen jardunean ere (liburuak, aldizkariak, Inguma datu-basea, unibertsitatea.net).

Graduen lerroan UOCekiko bidea itxita, proiektua sendotze aldera egin dugu, eta proposamen berria oso aurreratua dugu. Gai honen sozializazioari dagokionez, iritzi-artikuluak egon dira komunikabideetan eta eztabaida UEUren barruan posta elektronikoaren bidez.

Bestalde, ikertzaile gazteen ildoan ere sendotu nahi izan dugu IKERGAZTE kongresuarekin. Horretaz gain, UEUren proiektuaren baitan parte hartzea indartu, gure eskaintza zabaldu eta euskalgintza zein hezkuntza-alorreko beste eragileekin harremanak sendotzeko nahia azaldu du.

“UEU Nafarroan: aukerak eta erronkak” mintegia

Hiru urte igaro eta gero, urtariletik aurrera Nafarroako bulegoa martxan jarri dugu eta bertako langilea, Edurne Koch, lanean hasi da berriro. UEUren Talde Eragilearen apustua izan da UEUK Nafarroan izan behar duen proiektua abian jartzea, eta, horretarako, egoitza martxan jartzeaz gain, Ane Ablanedo nafar bazkidea Talde Eragileko kidea da.

“UEU Nafarroan: aukerak eta erronkak” mintegia otsailean egin dugu Iruñean UEUren egoitzan eta Nafarroako egitasmoari heldu diogu. UEUK bertan bete beharreko funtzioa edo atxiki beharreko erronka zehazten hasi gara, ziur baikara asko dela Nafarroak eta UEUK elkarri eskain diezaioketena.

Horretarako, UEUren asmo eta helburuekin bat egin lezaketenez bazkide, lagun eta eragile oro bildu ditugu mahai baten inguruan.

UEUren eta Oihaneder Euskararen Etxearen arteko hitzarmena

Otsailean UEUren eta Gasteizko Oihaneder Euskararen Etxearen arteko lankidetzaren lehen oinarriak finkatu ditugu, euskara eta unibertsitate-jakintza zabaltzeko asmoz. 2015ean zehar hiru formakuntza-ikastaro eskaini ditugu elkarrekin, bai eta euskararen inguruko mintegia ere.

UEU ere Euskahaldun: KORRIKA

UEUK ere egin du bere kilometroa 19. KORRIKAN. Iñaki Alegriak, UEUKo zuzendariak; Ander Altunak, Mari Karmen Menikak eta Nekane Intxaurtzak, UEUKo lantaldeko kideek, eta Anartz Ormazak, UEUKo Arkitektura sailburuak eraman dute lekukoa Bilbon, UEUK bulegoa duen Erribera kaletik abiatuta ueukideen laguntzaz. Une hunkigarriak izan dira Unibertsitate Euskahaldunaren alde.

UEUren eta BERRIaren arteko hitzarmena

Apirilean UEUK eta BERRIAk akordioa egin dugu, euskara ardatz hartuta dihardugun eragile izanik,

euskaldunon komunitatea egituratu eta bi proiektuei ikusgarritasuna emateko helburuarekin. UEUK antolatzen dituen ikastaro, kongresu eta bestelako egitasmoei oihartzun zabalagoa ematea ekarriko du besteak beste elkarlanerako bide honek, baita elkarren interesekoak diren gaietan formakuntza eta garapenerako ate berriak zabaltzea ere.



UEUren eta Deustuko Unibertsitatearen arteko hitzarmena

Euskara unibertsitatean sustatzeko lankidetzahitzarmena sinatu dute Deustuko Unibertsitateak eta UEUK maiatzean. Akordio honen bidez, unibertsitatean eta ikerketan euskara sustatu nahi da. Hitzarmenak elkarlanerako lerro ugari aipatzen ditu, hala nola bi unibertsitateen arteko jakintza- eta komunikazio-trukea erraztea, langileei prestakuntza eskaintzea, berezko titulu eta graduondokoetan euskarazko eskaintza areagotzea, euskarazko argitalpenetan lankidetzak bultzatzea eta ikasleei praktikak egiteko aukerak zabaltzea. Ekitaldian Jose María Guibert Deustuko Unibertsitateko errektoreak, Iñaki Alegria UEUKo zuzendariak eta Nerea Mujika Deustuko Unibertsitateko Euskal Gaien Institutuko zuzendariak parte hartu eta bi erakundeek hitzarmenari ematen dioten garrantzia azaldu dute. Ondoren, Elixabete Perez, Itziar Navarro eta Xabier Landabidea ikertzaile eta irakasleek euskarak XXI. mendeko unibertsitatean duen tokia aztertu dute, ikerketaren, argitalpenen eta ikertzaile gazteen ikuspegitik.

Hitzarmena Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin

UEUK eta Nafarroako Unibertsitate Publikoak (NUP) elkarlanerako hitzarmena sinatu dugu urrian.

Helburua da elkarlana sustatzea alor akademikoan, materialgintzan eta beste hainbat alorretan. Carmen Jarén NUPeko Irakaskuntzarako errektoreordeak eta Iñaki Alegria UEUKo zuzendariak sinatu dute akordioa (argazkian). Iñaki Alegriak hitzarmen hau mugarria dela azpimarratu du. UEU historikoki lotuta dago Nafarroarekin, eta gaurkoa aurrerapauso handia dela adierazi du. Sinatzaileez gain, ekitaldian lagun hauek ere parte hartu dute: Ane Sarasuak, UEUKo idazkari nagusiak; Edurne Koch-ek, UEUKo Nafarroako koordinatzaileak; Koldo Asironek, NUPeko Hizkuntza Plangintzarako Zerbitzuko zuzendariak; Imanol Nuñezek, NUPeko Hizkuntza Arloko zuzendariak, eta aurretik kargu hori zuenak, Pablo Sotese. Hitzarmenaren atalak hauek dira: arlo akademikoa, argitalpengintza, datu-baseak, praktikak eta informazio-trukea.

Juan San Martin beka

Eibarko Udalak, UEUren laguntzarekin, euskarazko ikerketa sustatzeko eta Juan San Martin eibartar euskalari eta ikertzailea omentzeko, haren izena duen ikerketa-bekarako deia egiten du bi urterik behin. Aurten XII. beka-deialdia egin dugu, ETNOLOGIA gaia ardatz izan duelarik. Epaimahaiak aho batez erabaki du beka Jaime Altuna eta Josu Ozaitari ematea *Halloween edo Animen gauaren ospakizunen inguruan Euskal Herrian eman den bilakaera eta partaideen diskurtso, bizipen eta praktiken azterketa* ikerketa-proiektua egiteko.



UEUren Bilboko eta Eibarko egoitzak

2000. urtean UEUK, Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzarekin eta kreditu bat tarteko, Bilboko Egoitza Soziala erosteko bidea abiatu zuen. 15 urte

geroago, eta ahalegin handiaren ostean, pozez esan dezakegu Bilboko egoitza UEUren ondare dela dagoeneko, azaroan maileguaren azken kuota ordaindu eta gero. Urte berean (2000. urtean) sinatu zuen UEUk Markeskoa jauregia kudeatzeko hitzarmena ere, Eibarko Udalarekin 10 urterako. 2010. urtean bost urterako luzapena izenpetu genuen eta abenduan beste 5 urtetarako lagapen-hitzarmena sinatu dugu.

ADITU DUZU? irratsaioa

UEUk *ADITU DUZU?* irratsaioa jarri zuen martxan iaz. Irratsaioaren helburua goi-mailako hezkuntza-eta ikerketa-alorreko informazioa eskaini, ikertzaile gazteei tarte bat eskaini eta UEUren lana ezagutzera ematea da. Hileko lehen astelehenetan emititzen da saioa eta aurten Daniel Carballo arkitektoa, Alazne Aizpitarte psikologoa, Ainhua Latatu UEUko unibertsitate-gaietako arduraduna, Olatz Perez de Viñaspre informatikaria eta Nerea Alaba elkarrizketatu ditugu, besteak beste.



Jarduera akademikoa

IKERGAZTE kongresua

200 ikertzaile bildu ziren maiatzaren 13, 14 eta 15ean Landako erakustazokan egindako IKERGAZTE kongresuan. Urteak daramatzagu UEUn arloz arloko profesional eta ikertzaileen bilkurak antolatzen, eta aurten jauzi kualitatiboa eman nahi izan dugu, aspaldiko asmoari helduz, arlo guztietako ikertzaile euskaldunentzako bilgunea sortu dugu.

116 komunikazio bildu ditu kongresuak, horien artean 72 ahoz aurkeztu dituzte ikertzaileek eta gainerako 44ak posterren bidez irudikatu dira. Sarrera-hitzaldia Paul Zachary Myers Biologiako irakasle estatubatuarrek eskaini du, dibulgazioaren garrantziaz. Lehen kongresu honekin mugarri bat jarri dugula uste du UEUK, ikerkuntzak ere euskaraz dakiela frogatu delako bertan. IKERGAZTE kongresua bi urterik behin egitea da asmoa.

“Lurraldea eta Hizkuntza II. Jardunaldiak. Erronkak & tresnak”

140 pertsonak baino gehiagok parte hartu dute Gipuzkoako Foru Aldundiak, UEMak, Kontseiluak eta UEUK otsailean antolatu dugun “Hizkuntza eta Lurraldea. Lurraldea eta Hizkuntza” jardunaldiaren bigarren bilkuran. Bertan, lurralde-antolakuntzan hizkuntza-irizpideak txertatzeko erronka eta tresna zehatzei buruz jardun dugu. Pertsonaltasun-printzipiotik lurraldetasun-printzipiora doan jauzi kualitatiboaz solastu dira bertan, euskaldunen bizitoki geografikoak hauskortasun berezia duelako urbanizazio-prozesu desorekatzaileen aurrean.

Udaberriko eskaintza

UEUK otsaila eta maiatza bitartean, 18 ikastaro eskaini ditu udaberriko eskaintzan on-line, Eibar, Gasteiz eta Iruñean. Gaiak askotarikoak izan dira, betiko legez: Moodle, euskararen historia, ordenagailu bidezko itzulpena, gazteak eta sare sozialak, haur-psikologia eta abar. Guztira, 154 pertsonak eman dute izena ikastaro hauetan.

“Munduari so: XXI. mendeko inperialismoaren hausnarketa prozesu ezberdinen gakoei erreparatuz” jardunaldiak

Ekainaren 6an egin dira Eibarren UEUK eta Askapenak antolatutako “Munduari So” topaketak. Bertan, 70 pertsonak parte hartu dute. Jardunaldi hauen helburua gaur egungo munduaren funtzionamenduari so, kontzeptu jakin batzuk lantzea izan da, inperialismoa bereziki eta kapitalismo neoliberalak besteak beste. Hori guztia oinarri, munduan gertatzen diren hainbat gatazka eta prozesu ulertzeko gakoak landu ditugu.

Kontinenteka, European izandako “koloreetako iraultzak” deritzenak, Ukrainari bereziki erreparatuz. Latinoamerikako prozesu bolivartarra zein Jatorrizko Herrien ahalduntzea; arreta berezia gobernu postneoliberaletan eta ALBA-TCP moduko integrazio-prozesuetan ipiniz. Azkenik, Mundu Arabiarren eta Palestinaren garrantzia, “Udaberri Arabiarren” ondorioen azterketa eginez.

“Elikadura Burujabetza eta Agroekologia ikertzen. Ba ote dago Elikadura Burujabetzan eta Agroekologian euskal ikertzaile sare bat sortzerik?” jardunaldiak Ekainaren 17an egin dira Eibarren UEUK antolatutako Elikadura Burujabetza eta Agroekologia topaketak. Bertan, alorreko 60 adituk parte hartu zuten. Jardunaldi hauen helburua izan da, batetik, arloaren bueltako ikertzaileak bildu eta zenbait ikerketa labor aurkeztea, eta, bestetik, elkarrekin gogoeta egitea zeintzuk izan daitezkeen etorkizunean kolaboratzeko bideak eta ikertzaileak sartzeko aukerei buruz hausnartzea.

“Euskara, estatugintza eta naziogintzaren erdian” jardunaldiak

Ekainaren 25 eta 26an egin dira Iruñean UEUK eta JAKINEK antolatutako “Euskara, estatugintza eta naziogintzaren erdian” topaketak. Bertan, 150

pertsonak parte hartu dute. Jardunaldi hauen helburua herria, estatua, nazioa eta euskara lantzea izan da. Azkenaldian, Katalunia eta Eskoziako burujabetza-prozesuen eraginez, gurean indarra hartu duen eztabaida da, eta diskurtso berriak azaldu dira, hala euskalgintzan nola akademiaren eremuan. Horregatik, beharrezkotzat jo dugu eztabaida eraikitzaile bati leku egitea. Galdera zahar-berri ugari planteatu dira: hala nola zertaz ari gara euskal estatuaz ari garenean? Naziogintzak eta estatugintzak euskaratik igaro behar al dute? Euskara eta abertzaletasuna apaldu beharrean al daude independentziaren alde egingo duen subjektu politiko zabal bat eratzeke? Hala balitz, abertzaletasuna eta euskara binomio klasikoa bukatu dela esan liteke? Euskarak zer leku behar duen izan burujabetza politikoaren prozesuan, edozein dela prozesu horren forma eta eskuduntza-maila? Nola berriro behar du euskarak eta euskaltasunak bere iruditeria kolektiboa, gero eta hegemonikoagoa izan dadin?



Udako ikastaroak: #Jardun

2015ean UEUK 34 ikastaro eta 6 jardunaldi antolatu ditu; 18 ikastaro eta 5 jardunaldi Eibarren (UEUren Ikastetxe Nagusian), 8 ikastaro Baionan (AEKn) eta 8 ikastaro eta jardunaldi bat Iruñean (Jaso Ikastolan). Jaso ditugun ikastaro-proposamenak 95 izan dira.

Iñaki Alegriak hitz hauek esan ditu aurkezpenean: “Lau hamarkada daramatza UEUK euskara eta unibertsitatearen alde lanean. Denbora tarte horretan UEUK egindako ekarpena handia izan da: euskara unibertsitate-esparruan landu zitekeen apustua egia bihurtzea, euskarazko hiztegi teknikoaren definizioa, euskal komunitate zientifikoarentzat bilgune izatea, proiektu berritzaileak martxan jartzeko gaitasuna,

unibertsitate-mailako testugintzan eta formazioan egiten duen lan erreferentziazkoa eta, noski, Euskal Unibertsitatearen aldarria. Orain aipatutako zereginaz gain, ordea, UEUK betetzen duen funtzio garrantzitsuenetako bat azpimarratu nahiko nuke: unibertsitate-sistemaren barruan sare euskalduna biltzea. Hau da, jakintza eta aditu euskaldunen topagune eta akuilu izatea. Argi geratu da izaera hori IKERGAZTE kongresuan, eta argi geratuko da, baita ere, JAKINEkin batera antolatu dugun jardunaldian ere. Udako Ikastaroen plaza ere ikasi, eztabaidatu, lan egin eta ideiak trukatzeko foro ezin hobea da, eta bertan parte hartzera gonbidatzen zaituztet”.

Irati Iciar Udako Ikastaroetako arduradunak aurtengo leloaren nondik norakoak azaldu ditu: “JARDUN leloa aukeratu dugu aurten udako ikastaroetan jendeak aditz horren bi adierak praktikan jartzen dituelako: hots, alde batetik lan egiten du, eta, bestetik, hitz egiten du, harremanetan jartzen da... UEU erakunde bizia eta parte-hartzailea da, eraikitzailea. Aurten, gainera, garrantzi berezia izango dute jardunaldiek, eta horri ere egin nahi izan diogu erreferentzia lelo honekin”.

Azken urteetako arrakastari eutsi eta azken urte hauetako partaidetza handiena izan dugu bertan: 672 parte-hartzaile.

Informazio eta Dokumentazio Kudeatzaileen I. Bilkura. “Lankidetzaren ardatz, euskara bitarteko, herritarra helburu”

Uztailaren 1ean egin da Eibarren UEUK eta ALDEEK antolatutako Informazio eta Dokumentazio Kudeatzaileen I. bilkura. Bertan, 45 adituk parte hartu dute. Jardunaldi hauen helburua sektore osoko profesionalak elkartzea izan da, ahalik eta iritzi gehien bildu, ahalik eta adostasun handienarekin etorkizuneko lankidetzaren aukerak diseinatzeko.

Hizkuntzalari Euskaldunen II. Topaketa: “Eleaniztasunak baditu hamaika aurpegi”

Uztailaren 2an egin da Eibarren UEUKo Hizkuntzalaritza Sailak antolatutako Hizkuntzalari Euskaldunen II. topaketa. Bertan, 30 adituk parte



hartu dute. Topaketa hauen helburuak izan dira eleaniztasuna ikuspegi ezberdinetatik aztertzea, gizarte eleaniztunean euskarak duen zereginaz hausnartzea eta hizkuntzaren alorrean euskal hizkuntzalarien bilgune izatea.

“Beste ekonomia bat sustatzeko unibertsitate eredu eraldatzaileak” jardunaldiak

Uztailaren 3an egin dira Eibarren UEUK eta Emaus Fundazioak antolatutako “Beste ekonomia bat sustatzeko unibertsitate eredu eraldatzaileak” jardunaldiak. Bertan, 20 adituk parte hartu dute. Topaketa hauen helburua izan da, alde batetik, ekonomia solidarioa sustatzeko campus-mailan hezkuntza-prozesu formal eta ez-formalak martxan jartzen dituzten unibertsitate-eredu eraldatzaileak ezagutzea (bertakoak eta Latinoamerikakoak), eta beraien praktikak gure inguruan martxan jartzeko aukeraren inguruan eztabaida sortzea. Bestetik, praktika onak eta beraien ezaugarriak aztertzea, eta gizarte-mugimenduen/gobernuz kanpoko elkarteek gizarte-eraldaketa helburuak eta unibertsitateak gizartea eraldatzeko izan dezakeen ahalmena nola bateratu hausnartzea. Azkenik, jardunaldi hauen bidez campus-mailan eraldaketa eta ekonomia solidarioa sustatu nahi duten ikasle eta gizarte-elkarteak indartzeko bideak aurkitu nahi izan dira.

Mendizaletasunari buruzko graduondoko berria antolatu du UEUK

Ekainean UEUK 2015/2016 ikasturterako UPV/EHU sustatu dituen lau graduondokoak aurkeztu genituen. UEUren ildo estrategiko nagusietako bat da goi-mailako formakuntzaren euskarazko eskaintza sustatzea, euskal gizartearen formazio- eta hizkuntza-beharrei erantzuteko eta Euskal Unibertsitatearen ildo indartzeko asmoz.

- Hondakinen kudeaketa eta tratamendua (4. edizioa)
- Itzulpengintza eta teknologia (4. edizioa)
- Agroekologia: trantsiziorako gure bideak lantzen (2. edizioa)
- Mendizaletasuna: mendi jardueren ikasketak (1. edizioa)

Aurreko ikasturteko graduondoko batzuetako

proiektuak Udako Ikastaroen baitan aurkeztu ditugu, jardunaldi formatuan.

“Hondakinen kudeaketa eta tratamendua. Proiektuak” jardunaldia uztailaren 12an eta 13an egin zen Eibarren, eta bertan 50 adituk parte hartu zuten. Topaketa honen helburua izan da hondakinen kudeaketa eta tratamenduen inguruko hausnarketa bultzatzea eta hondakinen kudeaketa eta tratamenduei buruzko azterketa eta irizpide akademikoen zabalkundea egitea.

“Agroekologia: trantsiziorako gure bideak landuz. Proiektuak” jardunaldia uztailaren 15ean egin zen Eibarren, eta bertan 10 adituk parte hartu zuten. Topaketa honen helburua izan da agroekologiaren eta gure etorkizunaren inguruko hausnarketa bultzatzea eta agroekologia ikuspuntu ezberdinetatik lantzea.

Ikasturtearen hasiera: lankidetzak sustatzeko deia

Urriaren 1ean UEUK 2015/2016 ikasturtearen hasiera-ekitaldia egin du Eibarren, ikastetxe nagusian. Bertan, goi-mailako euskarazko kalitatezko eskaintza bat emate aldera, lankidetzak sustatzeko deia egin du Iñaki Alegriak, UEUKo zuzendariak: *“Euskal komunitate unibertsitarioak iraun eta garatzeko, bi erronka ditugu aurrean: alde batetik, aditu, zientzialari eta profesionalak formatzera zuzendutako goi-mailako euskarazko kalitatezko eskaintza ematea, eta bestetik, adituak harremanetan jartzeko guneak sortzea, elkarrezagutza sustatu, sinergiak bildu eta ezagutzak partekatzeko. Lehenengoari dagokionez, oraindik asko dago egiteko. Graduondokoak, masterrak eta berezko tituluak, salbuespen batzuekin, ez dira euskaraz eskaintzen. On-line gradurik ez dago euskaraz, eta hori behar-beharrezkoa dugu gaur egun. Gabezia horiek gainditzeko, ezinbestekoa da unibertsitate, administrazio eta erakundeek elkarlana eta sinergiak biltzea. Indarrak batuz, bakoitzaren esperientzia baliatuz eta osagarritasuna bilatuz gizarte honek behar duen kalitatezko eskaintza antolatu beharko genuke. Horren adibide ditugu UPV/EHUrekin, Deustuko Unibertsitatearekin, Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin, BERRIarekin eta JAKINekin sinatu edo sinatzear ditugun hitzarmenak”*.

Ikasturtearen hasiera-ekitaldi honetan ikertzaileei

keinu berezia egin nahi izan die UEUK eta hori dela-eta, Gorka Azkune informatikariak eskaini du irekiera-hitzaldia: *Zientzia istorio bat - Lehenaldira begiratuz etorkizuna eraikitzen*".

Udazkeneko eskaintza

UEUK udaberriko eskaintzan garrantzi berezia eman die on-line ikastaroei. Iraila eta Abendua bitartean, 18 ikastaro eskaini ditu UEUK on-line, Eibarren, Gasteizen eta Iruñean. Code.org, sormenerako hezkuntza, nerabeekiko lana, R softwarea, euskararen historia, Raspberry Pi eta jende aurreko komunikazioa izan dira landutako gai batzuk. Guztira, 116 pertsonak eman dute izena ikastaroetan.

MOOC ikastaroak

UEUK, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta ASMOZ Fundazioak bi MOOC ikastaro egin ditugu udazkenean.

- Euskararen lehentasuna eta hizkuntza prebentzioaren ikuspegia Euskal Herriko marko juridikoetan.
- HTML5 estandarra sakontzen.

Lehenengoan 115 pertsonak izena eman dute eta horietatik % 22k bukatu du ikastaroa. Bigarrenean 221 matrikulatu egon dira eta % 30ek amaitu du ikastaroa. Azpimarratzekoa da MOOC formatuetan ikastaroa amaitzen dutenen kopurua % 4-10 artean kokatu ohi dela. Gure kasuan datu hori askoz ere altuagoa da, eta, ondorioz, balorazio oso positiboa egiten dugu.

"IEB2015: Amesten al dute androideek ardi latx elektrikoekin?"

Azaroaren 12an egin da Donostiako Teknologia Elkartegian UEUren Informatika Sailak antolatuta Informatikari Euskaldunen 10. Bilkura "Amesten al dute androideek ardi latx elektrikoekin?" izenburupean. 1996an izan zen bilkura hauen lehen edizioa, eta handik hona beste bederatzik ekitaldi antolatu dira. X. edizioa izaki, izenburu berezia bilatu nahi izan dugu: "Amesten al dute androideek ardi latx elektrikoekin?" Aurten robotikaren inguruan aritu baikara. Robotek, mekanikaz eta elektronikaz gain, softwarea behar dute. Gaur egun, Internet bidez eta gizarte-sareak erabilia robotekin komunikatzeko aukera dago. Teknologia berriak,

gaurkoak, atzokoak eta biharkoak, aurreratuenak, barneratzen dituzte. Gizartean onarturik daude, etxeko tresna gisa, irakaskuntzan eta medikuntzan ere erabiltzen dira. Aurreko edizioetako izenburuak ikusita orain arteko gai guztiak bildu ditugu robotikaren inguruan. Informatikari euskaldunen bilkura izanik, robotikaren munduaz ez ezik, informatikan euskaraz jarduteak berezko dituen bestelako gorabeherak ere izan dute lekua bilkurako gaien artean. 200 aditu bildu dira bertan.



"NZ2TOPA! Natur Zientzien 2. Topaketa"

Azaroaren 28 eta 29an egin da Donostiako Eureka! Museoan UEUren Natura Zientzien Sailak eta Euskal Naturak antolatuta Natur Zientzien 2. topaketa. Topaketak Euskal Herrian naturaren inguruan lanean dabilen jendearen eta naturazaleen elkargune izateko jaio ziren. Topaketak norberak egiten duen lana gainerakoei azaltzeko eta ingurukoek egiten duten lana ezagutzeko aukera eman duen plaza izan da. Horretarako, Euskal Herriko naturan eta zientzian eragin zuzena duten hainbat gairen inguruko hitzaldiak eskaini dira (energia eta etorkizuna...); taldeek, elkarteek eta erakundeek egiten duten lanaren berri eman ahal izan dute posterren bitartez; euskara eta zientzia uztartzen ditugunean sortzen zaizkigun galderen inguruan gogoeta egin dugu mahai-inguru bat osatuz; azkenik, elkar hobeto ezagutzeko eta landutako gaiei buruz aritzeko talde-bazkari eder batekin amaitu dugu topaketa. 120 aditu bildu dira bertan.

Code.org euskaratzeko maratoia

UEUK UPV/EHUko Informatika Fakultatearekin

elkarlanean Code.org euskaratzeko maratoia antolatu du azaroan. Code.org aplikazioa hainbat hizkuntzatan aurki genezakeen, ez ordea euskaraz. Gure erronka Euskararen Egunerako euskaraz plazaratzea izan da, baita lortu ere!

Euskal Wikipedia elikatzeko topaketa

UPV/EHUren Arabako Campuseko Euskara Zuzendaritzaren eta UEUren arteko elkarlanari esker euskal Wikipedia elikatzeko zikloa antolatu dugu abenduan. Elkarlan honen helburu nagusia Arabako Campuseko ikertzaile euskaldunak biltzea izan da eta bere baitan beste helburu batzuk bilatu ditugu, hala nola ikerkuntzaren alorrean euskaraz aritzeko estrategiak lantzea, euskarazko dibulgazioa bultzatzea, ikertzaile euskaldunen arteko elkarlana bultzatzea, formazioa euskaraz eskaintzea edo ikertzaile euskaldunen ikusgarritasuna lantzea.

Argitalpengintza

Argitalpen-protokoloa martxan

Argitalpengintza Batzordeak UEUn argitaratzeko beharrezkoak diren jarraibideak onartu ditu aurten. Hemendik aurrera, beraz, protokolo horri jarraituko diogu edozein proiektu onartzeko orduan.

10 liburu berri

UEUk unibertsitate-mailako testugintzan erreferente izaten jarraitzen du. Aurten 10 liburu argitaratu ditugu:

1. *Jarduera matematikoa eredu dinamikoen laguntzaz*
2. *I lker gazte: Nazioarteko ikerketa euskaraz. Kongresuko artikulubilduma*
3. *Enpresaren Zuzenbiderako sarrera: eskemak*
4. *Genero-berdintasunean hezteko gida*
5. *Giza histologia orokorra*
6. *Kimika orokorreko eskuliburua*
7. *Landa-eremua EAEn: egungo argazkia, etorkizuneko aukerak*
8. *Munduari so. Zenbait gatazka eta prozesuren gakoak ulertzeko XXI. mendeko inperialismoaren analisia*
9. *Ekonomia eta iraunkortasuna: oinarriak*
10. *Transmedia komunikazio estrategiak: gaurkotasan-edukiak diseinatzeko eta hedatzeko bide berriak*

Uztaro aldizkaria

Uztaro, Giza eta Gizarte Zientzien Aldizkariaren lau zenbaki argitaratu ditugu. Zenbaki bakoitzetik artikulatu bat guztion eskura jarri dugu uztaro.eus webgunean.

ALDIRI aldizkaria

ALDIRI. Arkitektura eta Abar aldizkariaren lau zenbaki argitaratu ditugu.

- 21. eta 22. zenbakiak: Azken KAPak
- 23. zenbakia: Pribatu/Publiko
- 24. zenbakia: Paisaia badator

Era berean, aldizkariaren webgune berria ere martxan jarri dugu: www.aldiri.eus

Unibertsitateko ikasmaterialak sustatzeko diru-poltsak

UEUk unibertsitate-mailako euskarazko ikasmaterialak sustatzeko hiru diru-poltsatarako deia egin du 2015ean ere. Poltsa bakoitzaren iraupena gehienez urtebetekoa da eta diru-zenbatekoa 1.000 eurokoa. Jakintza-arlo guztietara irekita dagoen deialdia da hau. Aurreko deialdiko irabazleak hauek izan dira:

1. Garbiñe Pedrosok, Arkitekturan lizentziatua, eta besteek aurkeztutako *Bioeraikuntzaz eraikiz*.
2. Maider Uriartek, Arkitekturan doktorea, eta besteek aurkeztutako *Lurraldea eta hiria XXI. mendean. Ikerkuntzarako gida*.
3. Bakarne Altonagak, Filosofian lizentziatua, eta besteek aurkeztutako *Historiagintzaren ikuspegi berriak: teoria eta praktika*.

Buruxkak liburutegi digitala

UEUk 1978. urtean argitaratu zituen lehen liburuak eta geroztik mota guztietako generoetan aritu da: testuliburuak, saiakerak, goi-mailako dibulgazioa, erreferentziazko obren itzulpenak, doktorego-tesiak... Buruxkak liburutegi digitalaren helburua UEUk argitaratu dituen liburu, aldizkari eta doktorego-tesiak biltzea eta euskarri elektronikoa unibertsitario euskaldunei eskaintzea da, ikasteko, irakasteko, irakurtzeko eta ikertzeko erabil ditzaten. 2015ean zehar, edukiak on-line jartzeaz gain, gure liburu- eta artikuluegileei elkarriketak egin dizkiegu bi asterik behin: Nahia Idoiaga, Izaro Zinkunegi, Kepa Iturralde eta Leire Milikuari, besteak beste.

KONDAIRA aldizkaria martxan

KONDAIRA aldizkaria historia euskaraz lantzea ardatz duen aldizkari elektronikoa da. Historialari euskaldunen eta orotariko historia-zaleen topagune izan nahi du proiektu honek. *Kondaira* UEUren Historia Sailak sortu zuen 2003. urtean eta ia urte biko geldialdiaren ostean berriro ekin diogu proiektuari. www.kondaira.eus



Durangoko azoka

50. edizioa izan da Durangokoa, eta urtero bezala, UEU bertan izan da. Azoka euskarazko produkzio idatzian nahiz diskogintzan erreferentziala da. UEU unibertsitate-mailako euskarazko produkzioan aitzindaria den heinean, ezinbestekotzat jotzen dugu urtero-urtero bertan egotea. Liburuak saltzea baino areago UEU eta haren lana ezagutaraztea da gure helburua azokan.

Informazio- eta komunikazio- teknologiak

INGUMA datu-basea, gero eta aberatsagoa

2015ean 15 urte bete zituen Euskal Komunitate Zientifikoaren datu-baseak. Aurten 16. ibilbidea hasi berria dugu, egitasmoa hazarazi eta aberasteko asmoz. 2015ean, besteak beste, 400 egileren produkzioa barneratu genuen eta 1.200 erreferentziatik gora katalogatu genituen, horietatik % 85 idatzizko lanen datuak izan ziren. INGUMAn 38.000 produkturen datuak (liburuak, itzulpenak, artikulak, liburu-atalak, aipamenak...) ditugu eskura eta 13.600etik gora erreferentziaren edukia zuzenean kontsulta daiteke.

Unibertsitatea.net

Euskal ikertzaileek egiten duten lana gizarteratzeko konpromisoarekin jarraitzen du Unibertsitatea.net atariak, eta hamabostero, atariko Zitzu Bizian albistegian, euskal ikertzaile gazteak elkarriketatzen ari gara. Hainbat dira elkarriketatu ditugun ikertzaileak: Txomin Bornaetxea, Alazne Ascenso, Aitor Arrieta, Lide Arana, Jon Alkorta, Nerea Alaba, Amaia Pinacho, Ainara Valencia, Olatz Perez de Viñaspre, Gorka Azkune, Nerea Osinalde, Xabier Landabidea, Begoña Altuna, Edurne Larraza, Alazne Aizpitarre, Asier Erramuzpe, Amaia Alvarez, Daniel Carballo eta Ana Viñals.

Berrikuntza teknologikoei dagokienez, Twitter eta Facebooken kuxak ikusgai jarri ditugu portadan alde batetik, eta Otarrea dokumentu-biltegiak bideoak kapsulatzei aukera du orain.

TESIKER. Euskarazko doktorego-tesien 40 urteko ibilbidea

1976. urtekoa da euskarazko lehen tesia. Ricardo Arrue doktore bihurtu zen Medikuntza alorreko euskarazko tesi batekin. *Egan* aldizkarian eman zuten horren berri 1978-79ko zenbakian eta bertan agertzen denez "beste sendagile euskaldunen

ikasbiderako" lana izan zen berori. Ordutik aurrera askok egin dute tesia euskaraz, 540 doktore eta 540 lan guztira. Horietatik 334 sarean daude kontsultarako, UEUk eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak kudeatzen duten euskarazko tesien datu-basean. Hau da, egindako tesien % 62 kontsulta zuzenerako prestatu ditugu, 1982. urtetik 2015era arteko hamaika ikerketaren emaitza sarean doan eta libre.

Bilduma osatzen joango gara 2016an eta eginkizun horretan zuen laguntasuna ere ondo etorria izango da. Beraz, tesia euskaraz egin baduzue edota egin duen norbait ezagutzen baduzue, jar zaitezte gurekin harremanetan eta laguniezaguzue biltegia biribiltzen: tesiker@ueu.eus

Euskarabildua #4 - 2015 edizioa

Azaroan antolatutako jardunaldi hau Ametzagaiñak, Argiak eta iamezak, eta UEU laguntzaile izan da. "Mundua bete pantaila: Komunikazio eta marketin eredu berriak gailu ugariako errealitatean" izenburupean egin dira aurtengo Euskarabilduak. Pantailaz inguratuta bizi gara, hainbat gailu erabiltzen ditugu egunean zehar eta konturatu gabe batetik bestera egiten dugu salto: mugikorretik eramangarrira eta handik tablet-era edo telebistara. Telebista ikusi bitartean ere beste pantaila batzuekin elkar eragiteko gai gara. Batzuentzat orain deskribatutakoa eguneroko errealitatea izango da, beste batzuentzat etorkizuneko asmo handiak, baina egia dena zera da: komunikazio eta marketinaren ikuspegitik aukera anitz zabaltzen direla, eta horretan begirada jarri nahi izan dugu aurtengo jardunaldian.

Bilbon

Erribera kalea 14, 1D
48005 Bilbo
T (00 34) 94 679 05 46
F (00 34) 94 479 30 39
ldazkaritza@ueu.eus

Baionan

Arsenal plaza 1
64100 Baiona
iparraldea@ueu.eus

Eibarren

Markeskoa, Otaola 1
20600 Eibar
T (00 34) 943 82 14 26
F (00 34) 943 82 06 16
markeskoa@ueu.eus

Iruñean

Joaquin Beunza 13, behe
31014 Iruñea
T (00 34) 948 36 25 63
F (00 94) 948 38 46 59
nafarroa@ueu.eus

